


FUNTSEZKO JARDUERA

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardun dezan. Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balio proposamena egiteko, bezero potentzialera iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko. Beraz, funtsezko jarduerak arlo guztietan dute eragina modu batean edo bestean. Funtsezko jarduerak, hirutan banatzen dira: *Produkzioa*, *Arazoak Konpontzea* eta *azkenik, Plataformako edo Sareko Jarduera*.



Lehenik eta behin, *Produkzioa*. Aurretik esan bezala, produkzioa eskuzkoa izango da eta Euskal Herrian kokatuko da. Horretan gain, produkzioak ez du aldaketa klimatikoan eraginik edukiko, gure materialak naturalak eta ekologikoak izango direlako. Gainera jarduera honetan adituak diren langileetat gozatzen dugu gure enpresan. Zorionez, lepokoak ekoizteko orduan ez dugu inolako arazorik. Behar ditugun materiala eta lehengaiak denak, enpresa berekoak izango dira. Izan ere, lurraren egonkortasunaz arduratzen den konpainia bat da. Aurretiaz aipatu dugun bezala, aintzat hartzen dugun sail garrantzitsuenetako bat ingurumena da, hau zaintzea eta honetaz gozatzea ezinbestekoa baita gaur egun.

Ondoren *Arazoak Konpontzeko*, prozesuarekin aurkitzen gara. Beti aurkituko ditugu hainbat zailtasun gure bidean. Baina horiek sahisteko teknika apartaren bila ibili ondoren, gako aurkitu dugula esan dezakegu. Alde batetik, arazoa aurkitu edo detektatu bezain laster, konpontzen saiatuko gara. Esperientziagatik dakigu arazoak gerorago usteak kalteak eragiten duela, gehienetan gorabehera hori handiagoan edo larriagoan bihurtuz. Horregatik, gu geu bost jabeak konpontzeko saiakera egingo dugu, ez badugu lortzen soluzio bat aurkitzen, arazo hori dagokion sailari jakinaraziko diogu. Adb: teknologia arazo bat bada, teknologia departamentuari abisatuko diogu. Eta horrela funionatuko luke eremu guztietan.

Bukatzeko, *Plataformako edo Sareko Jarduerak* dauzkagu. Hau aurreko biek lotuta dago, baina batez ere, *Arazoak Konpontzearekin*, izan ere saretik konponduko ditugu aurrean aurkitzen ditugun arazoak. Bezeroek eguneko 24h-ko arreta behar dutela argi izanda, aukera hori emateko prest gaudela azpimarratzen dugu, gure negozioa aurrera eramaten dutenak bezeroak baitira. Bestalde, Klik Moreako berriak bertatik argitarauko dira bezero guztiak ohartu ahal izateko, doaineko zerbitzu bat da eta.